

Energien kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa
19.A astean (2020/5/4 - 2020/5/10) EAEko elektrizitate kontsumoa, %20,5 baxuagoa izan zen aurreko urteko aste berarekin alderatuta. Lurralde bakoitzari dagokionez aldakuntza ondokoa izan da:

- Araba: -%21,2.
- Gipuzkoa: -%17,3.
- Bizkaia: -%22,9.

Gas naturala
Zentral termikoetako kontsumoa alde batera utzita, etxebizitza sektoreak, zerbitzuek eta industriak gauzatutako gas naturalaren kontsumoak %30,8 egin du behera aurreko urteko aste berarekin alderatuta.

Sektoreka, gas naturalaren kontsumoaren aldakuntza ondokoa izan da:







- Industrialak: -%30,4.
- Etxebizitza eta zerbitzuak: -%32,2.

Erregaiak garraioan
Garraiorako erregai desberdinen kontsumoaren aldakuntza aurreko urteko aste berekoarekin alderatuta ondokoa izan zen:

- Gasolinak: -%63,7.
- A gasoleoa: -%32,1.
- JET A: -%87.

Oharra: 12A* Itxialdiaren hasiera

Iturriak: EEEn lanketa Iberdrola, Nortegas eta CLHren datuetan oinarrituta.



Elektrizitatearen kontsumoa Lurraldeka

Araba/Álava
 19.A astean (2020/5/4 - 2020/5/10) Arabako elektrizitate kontsumoa %21,2 baxuagoa izan zen aurreko urteko aste berarekin alderatuta.

Gipuzkoa
 Aste berean, Gipuzkoan, elektrizitatearen kontsumoa, %17,3 baxuagoa izan zen aurreko urteko aste berarekin alderatuta.

Bizkaia
 Bizkaiari dagokionez, elektrizitatearen kontsumoa %22,9 baxuagoa izan zen aurreko urteko aste berarekin alderatuta.

Elektrizitatearen kontsumoa sektoreka

Etxebizitza sektorea
 19.A astean (2020/5/4 - 2020/5/10) elektrizitate kontsumoaren aldakuntza metatua %9,6 izan da etxebizitza sektorean.







Industria sektorea
 Aste honetan elektrizitate kontsumoaren aldakuntza metatua -%30,3 izan da industria sektorean.

Zerbitzuen sektorea
 Zerbitzuen sektoreko elektrizitate kontsumoaren aldakuntza metatua -%20,5 izan da aste honetan.

Oharra: 12A* Itxialdiaren hasiera

Iturriak: EEEren lanketa Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Astea: 19.A (2020/5/4 - 2020/5/10)



Gas naturalaren kontsumoa EAEn (Z.T. kontutan hartu gabe)

Industriaren kontsumoa

19.A astean (2020/5/4 - 2020/5/10) industriaren gas naturalaren kontsumoa %30,4 baxuagoa izan zen, aurreko urteko aste berarekin alderatuta.

Etxebizita eta zerbitzuen kontsumoa

Aste honetan, aurreko urteko aste berdinarekin alderatzen bada, etxebizitza eta zerbitzuetan izandako kontsumoak % 32,2 egin du behera.







Gas natural konbentzionalaren kontsumoa guztira

Zentral termikoetako kontsumoa alde batera utzita, etxebizitza sektoreak, zerbitzuek eta industriak gauzatutako gas naturalaren kontsumoak %30,8 egin du behera aste honetan, aurreko urteko aste berdinarekin erkatuta.

Oharra: 12A* Itxialdiaren hasiera

Iturriak: EEEren Nortegasen datuetan oinarrituta.

Astea: 19.A (2020/5/4 - 2020/5/10)



Erregaien kontsumoa EAEn

Gasolinen kontsumoa
19.A astean (2020/5/4 - 2020/5/10) gasolinen kontsumoa %63,7 baxuagoa izan zen aurreko urteko aste berarekin alderatuta.

Gasolina motaren arabera aldakuntza ondokoa izan da:

- Gasolina 95: -%63,9.
- Gasolina 98: -%60,9.

Gasolioen kontsumoa

Gasolioen asteko kontsumoa aurreko urteko aste berekoa baino %27,5 baxuagoa izan zen.

Gasolio motari dagokionez, aldakuntza ondokoa izan zen:

- A gasolioa: -%32,1.
- B gasolioa: %17,6.
- C gasolioa: -%47,4.

Jet A-en kontsumoa

Aste honetan, aurreko urteko aste berdinarekin erkatuta, abiaziorako erregaien (Jet A) kontsumoak % 87 egin du behera.

Oharra: 12A* Itxialdiaren hasiera

Iturriak: EEEren lanketa CLHren datuetan oinarrituta.